

BALIO PROPOSAMENA - KULTUR-MIX

Zer behar edo arazo konponduko dugu?

Kultur Mix gaur egun oso presente dagoen arazo sozial bati erantzuteko sortu da: kultura desberdinetako pertsonak gizartean ongi integratzeko zailtasuna. Gero eta ingurune anitzagoetan bizi garen arren, askotan pertsonak ez dute benetan elkar ezagutzen, eta horrek aurreiritziak, komunikazio falta eta, kasu batzuetan, gizarte-bazterketa eragiten ditu.

Gure proiektuak gizarte-desintegrazio hori konpontzen lagundu nahi du, kultura desberdinetako pertsonen arteko kontaktua eta harremana erraztuz. Pertsona askok beste kultura batzuk ezagutu eta jende desberdinarekin harremanak izan nahi dituzte, baina ez dakite nola egin edo ez dute horretarako gune egokirik. Kultur Mixek modu erraz, dibertigarri eta segurua eskaintzen du.

Aplikazio baten bidez, hainbat kulturatako pertsonak konektatzen ditugu, benetako lekuetan egiten diren erronkak eta jardueren bidez, hala nola ikastetxeetan, gazte-zentroetan edo kultura-espazioetan. Horrela, parte-hartzea, errespetua eta elkar ikastea, pertsonak gizartean integratuago senti daitezen lagunduz.

Kultur Mix-ek laguntzen du:

- Desintegrazio soziala murriztea.
- Integrazio kulturala bultzatzea.
- Aurreiritziak eta estereotipoak haustea.
- Jatorri desberdineko pertsonen arteko harremanak sortzea.

Zerk egiten gaitu desberdin eta zergatik aukeratuko gaituzte?

Kultur Mix beste proiektu batzuetatik bereizten duena ez da kulturari buruzko informazioa ematera mugatzen, pertsonen artean esperientzia errealak sortzen baititu. Ez da edukia irakurtzeko aplikazio bat bakarrik, elkarrekin bizitzeko eta parte hartzeko tresna bat baizik.

Gure balio-proposamena hainbat alderditan oinarritzen da:

Berritasuna

Kultur Mixek kulturak ezagutzeko beste modu bat proposatzen du: erronka kulturaren eta jarduera praktikoen bidez. Erabiltzaileek parte hartzen duten bitartean ikasten dute eta beste pertsona batzuekin elkarlanean aritzen dira, eta horrek esperientzia errealagoa eta hurbilagoa egiten du.

Integrazioa errazten du

Aplikazioak errazago egiten du gizarteratze-prozesua, batez ere gazteentzat eta ikasleentzat. Gainera, ikastetxeek edo elkarteek kulturarteko bizikidetza lantzeko laguntza gisa erabil dezakete.

Pertsonalizazioa

Jarduerak eta erronkak adinaren, ingurunearen edo erabiltzaileen interesen arabera egokitu daitezke, eta, ondorioz, esperientzia erakargarriagoa eta erabilgarriagoa da talde bakoitzarentzat.

Diseinua eta erabiltzeko erraztasuna

Aplikazioak diseinu erraza eta intuitiboa du, edonork zailtasunik gabe erabili ahal izateko egina. Horrekin, parte hartzera eta proiektuaren barruan aktibo egotera animatu nahi dugu.

Balio soziala

Kultur Mix-en balio nagusia gizartean duen eragina da. Bizikidetza hobetzen laguntzen du, kulturen arteko errespetua sustatzen du eta gizarte batuagoa sortzen laguntzen du.

Gizarte-arriskuak murriztea

Kulturen arteko ezagutza eta elkarrekintza positiboa sustatzean, gizarte-isolamendua, diskriminazioa edo kultura-gatazkak bezalako arazoak murrizten dira.